

# I.EKINTZA PLANA



## Mungia Lagunkoia



**MUNGIA**  
UDALA

[www.mungia.eus](http://www.mungia.eus)    



**SARRERA**



**ZELAN  
EGIN DA  
PLANA?**



**PLANAREN  
KUDEAKETA  
ETA  
JARRAIPENA**



# 01

## SARRERA

Herritar agurgarriak:

Argitalpen hau Mungia Lagunkoia programaren I. Ekintza Planaren laburpen bat da. Duela lau urte hasi zen programa hori, hain zuzen ere, gure udalerrria aztertzeko eta hainbat ekintza proposatzeko bertako bizilagun guztientzat atsegina, eskuragarria eta seguruagoa izan dadin, batez bere edadetuenei begiratuta. Egindako lana herritarren parte-hartze aktiboan oinarritu da, eta, bereziki, 60 urtetik gorako pertsonen osatutako talde eragilearen beharrez. Lagun horiek, nekerik eta interesik gabe, lan handia egin dute jarraian aurkezten dizuegun Plana egiteko. Horregatik, alkate naizen aldetik, berriz ere eskerrak eman nahi dizkiet pertsona horiei, baita prozesu honetan parte hartu duten gainerako guztiei ere. Dokumentu osoa [www.mungia.eus](http://www.mungia.eus) webgunean kontsulta dezakezue.

Agur bero bat,  
**Ager Izagirre Loroño**  
MUNGIAKO ALKATEA



## ZEIN DA EKIMEN HONEN JATORRIA?

Adinekoentzako Hiri Lagunkoien Munduko Sarea OMEk (Osasunaren Mundu Erakundea) sustatutako proiektua da, edadekoen parte-hartze aktiboa sustatzeko, ingurune adeitsuagoak eta osasungarriagoak lortzeko, batez ere gehien bizi izan diren herritarrei begiratuta.

Mungia 2018an atxiki zitzaion sare horri; ordurik hona, partaidetza-prozesu bat garatu dugu 60 urtetik gorako bizilagunekin batera, elkarrekin hausnartzeko eta hobekuntza-arloak detektatzeko, udalerrri osasungarriagoa, seguruagoa eta herritarren zahartze egokirako hobe eraikitzeko.

## Mungia Lagunkoia:

### ZERTAN OINARRITZEN DA?

Adinekoentzako Hiri  
Lagunkoien Munduko Sarea  
(AFC- 2005),  
OMEk (Osasunaren Mundu  
Erakundea) sustatutako  
proiektua.

### ZERI EGOKITUTA DAGO?

Gure testuingurura egokituta  
dago, Eusko Jaurlaritzak  
sustatutako **EUSKADI  
LAGUNKOIA SUSTRAIETATIK**  
sarearen eta Bizkaiko Foru  
Aldundiaren **Bizkaia Lurralde  
Lagunkoia**ren bidez.

### ZER LORTU NAHI DU?

**ZAHARTZE AKTIBOA**  
Bizi-kalitatea hobetzeko,  
Osasun-, partaidetza- eta  
segurtasun-aukerak zabalduta.

## ZERGATIK MUNGIA LAGUNKOIA?


Mungia Lagunkoia bezalako proiektu bat bultzatzeak bizitza luzearen iraultzari erantzukizunez aurre egitea dakar.

Une honetan, Mungiak funtsezko faktore bi ditu ekimen hau gauzatzeko:

1. Mungiako biztanleriaren herena baino gehiago 60 urtetik gorakoa da.
2. Gure udalerrriaren garapen iraunkorra, gizarte-zerbitzuetarako sarbide unibertsala, jasangarritasuna, aisia osasungarria eta bizilagunen autonomia lortzeko politikak sustatzen oso kontzientziatua.

# MUNGIAKO ADINEKO BIZTANLEAK

60 urtetik gorako la-  
gun-kopurua guztira:  
gizonak/emakumeak:




# PROZESUAREN FASEAK



## METODOLOGIA

PROIEKTUAK 8 IKERKETA/EKINTZA ARLO DITU ARDATZ:





# ZELAN EGIN DA PLANA?

## 1 FASEA. DIAGNOSTIKOA: 2019aren amaiera eta 2022 bitartean burutu da.

### > **Analisi kuantitatiboa:**

Mungiako biztanleei egindako inkesta bat, 60 urtetik gorakoei arreta berezia jarrita.

**217**  
HOBEKUNTZA  
PROPOSAMEN

**348**  
GALDETEGI  
JASO DIRA

**%40**  
DIRA 60 URTETIK  
GORAKOAK

### > **Sakontze kualitatiboa: foku-taldeak eta herritarren topaketak.**

Helburua: lagunkoitasuna sustatzeko hobetu beharreko alderdiei buruzko iritziak eta proposamenak jasotzea.

#### 7 foku-talde:

- Adinekoak
- Auzoetako elkarteak
- Zerbitzuen hornitzaileak
- Zaintzaileak
- Hainbat udal-arlotako teknikariak
- Osasun-arloko langileak (osasun-zentroa, farmaziak)
- Gizarte Zerbitzuetako eta adinekoen zentroetako teknikariak

**Herritarren topaketa 2:** herritarrek parte hartzeko irekiak.

## 2. FASEA. PLANA IDAZTEA

Diagnostikoa egin eta proposamenak jaso ondoren, ekintza-eremu desberdinetan garatu beharreko hainbat jardura jasotzen dituen zirriborroa egin da. Zirriborro hori udal arloetako teknikariek kontrastatu da, eta, horren ondoren, behin betiko dokumentua idatzi da.

## TALDE ERAGILEA

60 urtetik gorako bizilagunek eratutako taldea da. 2018an sortu zen, proiektuaren aurkezpen publikoa egin zenean; izan ere, bertan talde horretan parte hartzeko gonbidapena egin zen eta horren ondorioz sortu zen 10 lagunek osatzen duten talde eragilea.

### **Eginkizun hauek ditu:**

- Proiektua herritarren artean zabaltzea.
- Profil desberdinak dituzten pertsonen inplikazioa sustatzea.
- Ikerketa-arlo bakoitza aztertzea.
- Ekintza Planaren diseinuan modu aktiboan parte hartzea.
- Ekintza zehatzak ezartzen laguntzea.
- Prozesua eta emaitzak etengabe ebaluatzea.



Pertsona horiek lan handia eta eskuzabala egin dute, eta protagonistak izan dira prozesu osoan, gurekin elkarlanean. **ESKERRIK ASKO** zuen konpromiso, lan eta eskuzabaltasunagatik.

# EKINTZAK

Mungia Lagunkoia I. Planak 61 ekintza biltzen ditu, esku hartzeko 8 eremuetan banatuta. Irakurterrazagoa izan dadin, dokumentu honetan ekintza aipagarrienak laburbildu eta multzokatu ditugu:



## 1. ARLOA: Aire zabaleko ekintzak

### Proposamenak

#### Zer lortu nahi dugu?

- Txakur-gorotzei buruzko kontzientziazio-kanpaina.
- Parkeetan eta pasealekuetan banku eta paperontzi gehiago jartzea.
- Lorategien eta berdeguneen mantentze-lanak hobetzea.
- Herritarrak sentsibilizatzeko ekintzak, ibaia eta ingurunea garbi mantentzearen garrantziaz kontzientziatzeko.
- Gune berdeetan gimnasia-aparatuak instalatzea.
- Hiri-baratzeak sortzea.
- Arratoiak kontrolatzeko kanpainak.
- Gaueko aisialdi-guneetako zarata-mailari buruzko azterlana eta gauez sortzen dituen kalteei buruzko kontzientziazio-kanpainak egitea.
- Espaloietan baldosa solteak konpontzea eta zoladura labanak hobetzea.
- Barandak jartzea maldak dauden eremuetan, oinezkoen joan-etorriak errazteko.
- Udalaren seinaleak hobetzea.
- Bainu publikoei buruzko informazioa.
- Auzoen beharrezaneiei buruzko proposamenak jasotzea.
- Udalerriko kexak eta/edo beharrezanak jasotzeko aplikazio bat sortzea.
- Zaborrontzien lagunkoitasuna hobetzea.
- Hurbiltasun-kanpainak Udaltzaingoaren eskutik.
- Tailer praktikoak adinekoekin, iruzurrak prebenitzeko.
- Adinekoen zuzendutako bide-hezkuntzari buruzko tailerrak.

## 2. ARLOA: Garraioa



### Proposamenak

#### Zer lortu nahi dugu?

- Bizkaibuseko autobusen irisgarritasuna hobetzeko eskaera.
- Bizkaibuseko zerbitzuaren beharrezaneiei eta erabilerari buruzko azterlana.
- Auzotaxi Zerbitzua sendotzea eta zabaltzea.
- Bizikletak aparkatzeko espazio gehiago jartzea.
- Bizikletaren erabilera sustatzeko sentsibilizazio-kanpainak
- Bizikleta-sarea handitzea.



### 3. ARLOA: Etxebizitza



#### Proposamenak

##### Zer lortu nahi dugu?

- Etxebizitzaren arloko zalantza ohikoenei buruzko gida praktikoa: laguntzak, legeak, igogailuak jartzea...
- Etxebizitza arloko oinarritzko gaiei buruzko informazioa HAZen

### 4. ARLOA: Partaidetza eta gizarte-ehuna



#### Proposamenak

##### Zer lortu nahi dugu?

- "Saltoki lagunkoia" programa abian jartzea denda eta ostalaritzako establezimenduetan.
- Jabekideen-erkidegoetan elkarri laguntzeko "Eskailera" programaren proba pilotua.

### 5. ARLOA: Herritarren parte-hartzea eta enplegua




#### Proposamenak

##### Zer lortu nahi dugu?

- Kulturen arteko topaketa-jarduerak programatzea.
- Elkarteen lana erakustea eta gida bat egitea.
- Elkarrekin euskararen erabilera sustatzeko kanpaina.
- Adineko pertsonen iritzia jasotzea, aisialdiko eta kulturako jarduerari dagokienez dituzten lehentasunak ezagutzeko.
- Gimnasia bioosungarriko aparatuak behar bezala erabiltzen irakasteko tailer gidatuak.
- Ibilaldi osasungarri gidatuak, ibilbide eta zailtasun-maila desberdinak jarrita.
- Mungiako eta inguruetako ibilbideen eta bidexken mapa sortzea.
- Dauden paseo-ibilbideetako seinaleak hobetzea.
- Kiroldetgia handitzea, hiru areto berri prestatuz.
- Kirol-instalazioen aprobeixamendua handitzea eta hobetzea.



## 6. ARLOA: Errespetua eta gizarte-inklusioa



### Proposamenak

#### Zer lortu nahi dugu?

- Nahi gabeko bakardade-egoeran dauden pertsonen buruzko azterlana.
- Boluntario talde bat aktibatzea, bakardade-egoeran dauden pertsonak telefonoz artatzeko.
- Gizalegea eta errespetua lantzeko sentsibilizazio-kanpainak.
- Umeen eta adinekoren arteko harremana sustatzeko jarduerak antolatzea (talde-ibilaldiak...)
- Gazteei prestakuntza ematea, adinekoei teknologia berriak erabiltzen irakats diezaieten.
- Belaunaldien arteko tailerrak Danontzat elkartarekin.
- Zerbitzu espezifiko bat gaitzea HAZen, adinekoei orientabideak emateko udalaren eta beste batzuen izapideak egiteko orduan.
- Jendaurreko langileak prestatzea, adinekoei arreta emateko.
- Mungian kokatuta dagoen Bizkaiko Foru Aldundiari adinekoentzako aurretiko hitzorduaren zerbitzua hobetzeko eskaera.

## 7. ARLOA 7: Komunikazioa eta informazioa



### Proposamenak

#### Zer lortu nahi dugu?

- Eten digitala murriztea adinekoak prestatzeko eta trebatzeko ikastaroak eta tailerrak antolatuta.
- Argitalpenen hizkuntza eta tipografia egokitzea, adinekoek errazago uler dezaten.
- Udalaren webgunea eguneratzea, intuitiboagoa eta lagunkoiagoa izan dadin.
- Interes orokorreko telefonoen buruzko informazio-kanpaina (anbulatorioa, udal-zerbitzuak...).
- Interes orokorreko telefonoak dituzten kartelak jartzea HAZen eta Udaltzaingoaren bulegoaren kanpoaldean.

## 8. ARLOA 8: Gizarte- eta osasun-zerbitzuak



### Proposamenak

#### Zer lortu nahi dugu?

- Tramiteak erraztea Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan.
- Eskuragarri dauden gizarte-baliabideei eta -zerbitzuei buruzko gida bat argitaratzea.
- Gizarte-zerbitzuei buruzko aurreiritziak ezabatzeko sentsibilizazio-kanpainak.
- Sentsibilizazio-kanpainak, mugikortasun-arazoak dituztenentzat gordetako aparkalekuen erabilera egokiari buruz.
- Berdintasun Planean ikuspegi lagunkoia txertatzea.
- Adinekoei zuzendutako informazio-kanpaina, JAGOTEN programa ezagutarazteko.
- Adineko pertsonentzako autozainketa-tailerrak egiten jarraitzea.
- Dauden osasun-zerbitzuei buruzko informazio guztia bilduko duen gida praktikoa bat argitaratzea.
- Jaustek eta istripuak prebenitzeko eta lehen sorospeneko tailerrak adinekoentzat.

# 03

## PLANAREN KUDEAKETA ETA JARRAIPENA

UDAL-ARLOAK

DANONTZAT  
NAGUSIEN  
ELKARTEA

TALDE  
ERAGILEA

GAIKAKO  
BATZORDE  
PUNTUALAK

KANPOKO  
LAGUNTZA  
TEKNIKOA

UDAL  
TEKNIKARIEN  
BATZORDEA:  
HOBEKUNTZA  
TALDEA



## KOMUNIKAZIOA

Aldian-aldian, planaren garapenari buruzko informazioa emango da, honako hauen bidez:

- Aldizkako informazio-saioak, herritarrei irekiak.
- Udalaren webgunea.
- Sare sozialak.
- Paperezko zabalkunde-elementuak.

## JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

### Ebaluazio kualitatiboa:

- Jarraipenaren urteko txostena, aurrerapenak eta berregokitzeak identifikatzeko.
- Behar berriak identifikatzea.
- Talde Eragilearen aldizkako bilerak.
- Inplikaturako udal-arloekin eta tokiko beste eragile batzuekin egindako kontraste-azterketa.
- Parte hartzen duten pertsona eta erakundeen balorazioa.
- Ebaluazio kuantitatiboa:
- Proposamen bakoitzean ezarritako adierazleen azterketa eta jarraipena.

### Ebaluazio kuantitatiboa:

Proposamen bakoitzean ezarritako adierazleen azterketa eta jarraipena.

Ekintza Plan osoa udalaren webgunean kontsulta daiteke: [www.mungia.eus](http://www.mungia.eus)

## PROGRAMA HAU BETI DAGO ZABALIK EKARPEN BERRIAK JASOTZEKO

### HARREMANETARAKO

Mungiako Udaleko Gizarte Ekintza eta Berdintasun Saila

94.655.87.14

[gizartekintza@mungia.eus](mailto:gizartekintza@mungia.eus)